

ORIXE'ren eskutitzak (IV)

Lazkao'tik eta Oresa'tik

Oraingo eskutitzok Orixek, Euskalerriratu gero, Lazkao'tik eta Oresa'tik egiñak ditugu.

Etxeko aizeak ez zaizkio osasungarriegi egin eta, orregatik, osasunaren goraberak, atzera-surreak maiz etorriko zaizkio luma-ortzetara. Sendatzeko, besteak beste, Fitero'ko uretara eta klinikaren bateko egotaldietara jo behar du. Eta bai beste sendagari batera ere: umore onera. Euskaitzain egin dute, alegia, Olinpoko jainko txikien antzera, ezin illezkoa —inmortal— oietakoa. Zertako bada, osasunez kezkatu eta bildurtu? Beraz, al danean al dan lan guztia egin eta aurrera.

Agustin donearen «Aitorkezunak» euskeratzea amaitu du eta argitaratu ematen ditu Donostia'ko Gotzaitegiko baimenez.

Noizik bein Gramatikazko gaitxoren bat ere ikutuko du. Lena go ere esan genduenek, O. eta O'. (Orixek eta Oartzabal'ek) bial elkarrekin gramatika berri bat antolatzen ari ziran, geroago agertuko zana, eta puntu batzuk elkarrekin argitu bearra sortzen zitzaizen aditz-formaren bat zala, itzen bat zala, eta ola. Gramatika ortatik kanpokoa dirudi euskal-sintaxiazko lan batek, beste izkuntza batzuetako sintaxiarekin bekaldeurik, konparaturik, egitekoa. Gizon bakarrarentzat lan astunegia dala-ta, Oartzabal jaunaren laguntza eskatzen du, bien artean egiteko.

Bezperak (eta Konpletak ere bai) euskerara itzulita dauzka eta nonbaiteko errietan asi nai omen dute kantatzen. Lan au oso begikoa du Orixe'k; orrela oitura zar bati eutsi eta bizi berria eman nai dio, batez ere gure erri txiki euskaldunen onerako.

Izan ere, oitura zarra izan da gure eliz askotan Bezperak kantatzekoa. Errosarioaz eta dotrinaz (itzalditxoaz) batera, igande arratsaldetako elizkizuna osatzen izan du. Agirre Asteasukoaren itzaldietan argi ikusten degu. Ona nolako kontua eskatzen dion bein kristaulari: «Begara izan ote dezun Meza Nagusi, Errosario eta Bezperetatik iges egiteko oitura lotsagarria? Badakit gauz oietako bakoitzak etzaituala bear-tzen bekatu larriaren azpian. Baiña denbora berean ezin ukatu diteke kristau asko daudela jakin bear dituen gauzak ez dakizkienak... Zer izango da, bada, oez, jaietan iges egiten badue Meza Nagusi, Errosario, Begera, Dotrina eta obra onetatik?».

Errosarioa eta dotrina, jakina, euskeraz izaten ziran, baiña Bezperak latinez, oraintsuarte. Eta au Euskalerrri osoan. Oitura au erre-zago egiteko, antzinaako otoitz-liburu askok sartzen zituzten igandetako Bezperak eta abar, Baiona-aldeko euskerazko otoitz-liburuetan beintzat, eta Bidasoaz onuntzakoetan ere bai banaka batzuetan. Gizaldi ontako bai aipatu ditzazkegu, gutxienez: Marzelo Zelaieta eta Aita Elizondo'ren *Kristaua bere Ponte-elizan* (1911), eta Beinza-Labaien'go Felipe de Jesus Etxeberria'ren *Bisitak* (1926). Bezperak kantatu nai dituztenentzat latinezko Bezperakin daude. Eta entzun bakarrik nai zituztenentzat ere baziren beste euskal-liburu batzuk, salmo bakoitzaren orde otoitz batzuk egiteko aukera ematen zutenak. Aita Kardaberaz'en izenez ainbat aldiz argitaratua izan den *Eskuliburua*, esaterako.

Urrengo urratsa Bezperak latinez eta euskeraz ematea izan zan gure eliz-liburuetan. Aita Polikarpo Iraizoz, aurren il danak, eman zuen urrats au, Iruñan, Neketako Ama Birjiñaren irarkolan latinezko eta euskerazko bezperakin liburutxoa aterata. Aurrerakada galanta izan zan au, noski; baiña ez luzaroko. Orrela, Bezperak latinez kantatu arren, euskera or latiniñaren argigarri ematen zala dirudi, es euskeraz kantatzeko.

Laster sortuko da giro berriagoa, salmoak eta gaiñerako guztia euskeraz eman eta kantatzekoa. Orixe beraren Meza Bezperak agertuko dira aurrena, 1949n argitaratuak, baiña zenbait urte lenago egina. Emen ere latin-euskerazko giroan gaude oraindio. Urrengo urratsa eta

aurrerakada euskera utsezko salmo eta kantuetarakoa izango da. Eta ontan orixe etorri zangu aurrelari, eta Iratzeder jarraitzaile. Orixek salmoak puntu edo rimadun bertsoz ematen dituela, eta Iratzeder bide estuagotik, rima eta neurri berdineko bertsoan. Orixek Lazkao'ko beneditarren ingurutik dabila, eta Iratzeder Beloke'ko Andre Maritik.

Eskutitz auetan ikusten ditugu Orixek ontan zerabilen lanaren zenbait gorabera: nola zihoan itzultzailearen lana, nola zabaldu zan erri batzuetara euskerazko bezpera aien berri, non kantatzen edo kantatu nai zituzten, nola zihoan gero inprentaz ateratzeko asmoa, patxara geiegiz, itzultzailearen iritziz, ez berak nai bezin azkar. Lazkao'ko prailleak nolabait ere, ez ziran guztitara eltzen, ez ziren nai bezin arin inprentatzeko gauza.

Emen dator bigarrenez Olabideren Bibliaren auzia ere, Ez da ageri Jesuiten nagusien erantzun argirik. Biblia ori argitaratzeko prestatzea beste egitekorik gabe Formosatik ekarri dute Aita Etxeberria. Berak eta Orixek elkar-ikuste bat ere izan dute. Eta guztiaren ondorioa zer da? Orixek eta Oizartzabal'entzat ez batere atsegina. Biok Olabide'ri bialitako oarkizunak aztarnarik ez omen zan agertu Olabide'ren Pabeko paperetan. Ez dago zer eginik. Jesuitek berentzat nai omen dute *totum honorem*. Orixek eta Oizartzabal'en auzia galdua da.

Ertlijozko lanez landa, Orixek beste lan bat ere agindu edo eskatu diote: euskal dantzez liburuxko bat egitea. Dantza Nagusitik asi da, eta aurrera jarraitu nai du. Zer geiago egin ote zuen? *Dantza Nagusia* dalako ori Omenaldi-liburuan agertua omen da.

Azkenez, beste elkar-lan bati ekitea eskatzen dio Oizartzabal adiskideari: «Baratza-lorra» dalakoa. Nonbait, kritika-lana da emen asmatan darabilena, baratz txiki baten barruan egitekoa: *Euzko-Gogoa*, *Egan* eta *Yakintza* aldizkarietan azaldu diran lan batzuk jorratzea, euskeraren aldetik eta moral-gizabidearen aldetik. Lan ontan odola beroegi jarriko ote zaion bildur da bera. Aitorpen polita. Eta Oizartzabal bezelako gizon bat, pake-girozko bat, gibel aundi eta beazun gutxiko bat artu nai du lagun, eztabaidan sartu ta bere onetik ez ateratzeko, odol-berokeriak neurri onera ekarri arazteko. Aitorpen au ere ez ote da bestea bezin polita eta jasotzekoa? Ez ote du besteak aña balio?

Degu = dugu, iauna = jauna eta olako bikuntzak Orixek'renak dira.

L. A.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari.

Adiskide gundi: Bizi naiz bai, baiña lanerako aski ilik nago, zazi illabetetan mikorik egingabe, esku zorioneko auengatik. Ezueriak gogor jotzen nau. Orain arindu zait poliki Fitero'n urak artu ezker... Bestela, osasunez oso ondo. Nai duzuna esango duzu, baiña foto oietan zartua agertzen naiz, eta oiek ez diote gezurrik. Oso galdurik nengoan aldi artan; larru-azal asko sobrante. Orain legundu zait aurpegia ta asko gaztetu naizela esaten didate. Ez da guzia gezurra.

Emen dauzkat mai gainean zure irurak erantzunik eman gabe.

Ni zurekin nago -KE ortan. «Para mí la idea de posible (no me gusta la palabra potencial), es más abstrusa y posterior a la de futuro». Baiña gaur ez da sori -KE orri gerokoaren adierazkizun soilla ematea. Mokoroak ez du aditu nai ere (belarriak ixten ditu) n-eza-ken = n-ken (noizaldi berdiñean); esan nezake = erran nitro = esan nuke.

Unusquisque in sensu suo abundet.

Kopiatzeko lan nekagarri ori (Ganboarentzat) utzazu.

Itsu = ciego; katsu = miope (AN-lar).

Olabideren Biblia? Mundu guziko arrazoiak eta bat geiago eman ditidate itz ederrekin. Oraintxe nago Castilla Occidental'go Provincial'aren azken erantzunaren begira. Luzatzen du. Aita Landaburuk itzez esan zidanex Nagusi orrek au uste omen du: irarkolarako antolatatu bear dunak, gu biokin izketaldi batzuk egitea naikoa dula.

*Aixta txikurrun-tzakun
mendian elurra;
asi baiño lenago
ba-nuen beldurra.*

Noiz zator onontzo? Ez duzu tutik esaten.

Aurkene sendotu dedilla.

Etxekoari goraintzi.

Memento

NIKOLA

P.S. Etorri banintzan etorri, ez diot egin eskutitz bat ere Quito'ko arrebari.

(Ez noizko ez nondiko argitasunik gabeko eskutitza da Orixe'ren au).

Lazkai'tik, 1956-22-II.

Oiartzabal'dar Martin Apaiz iaunari. Buenos Aires'a.

Adiskide aundi: Lengo batean bialdu zidaten Jesuïtek Aita Patxi'ko Etxeberria, A. Olabideren Itun zarra argitaratxekoxe Txina'tik deitu dutena. Esan omen die nagusieri, lan ori ez dala arentzat egiten dana, bañan agintzen dunak ez du erregutzen. Gizagaizoak lenengo galde au egin zidan: ia zer texto erabili zun itzulkizuna egiteko. Kontuak ateral!

Toulouse'tik «Manuscrits du P. Olabide» beste ezer ez omen du ekarri Bilbao'ra. Gure oarkizunen papertxo aien zantzuwik edo arras-torik ez omen da.

Zer egin genezaken galdetu zidan, eta besterik ezean —esan nion— kopis bat eman zegigutela guri, geuron oarkizunak ipintzeko. Artan geratu gñan.

Erroma'ra doa bi urteko. Ango euskalzaleek lagunduko omen diote.

Causa finita est.

Oso neketan ari naiz idazten, eta barkatu laburtasunari.

Memento

Ormaetxea'ar Nikola

Goraintzi A. Beobideri, or baldin ba'da, eta gainerako Lateran'dar oieri.

Lazkai'tik, 12-IV-56.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Errosario'ra.

Adiskide aundi: Ez egon kezketan nere osasuna dala-ta. Poliki

hartzen asi naiz. Ez zan negu gorrarengatik. Bi illabete terdi oiean egin ditut oiñaze ta sukar. Berogarri ederra nedukan. Zer gertatu zait bada? Eguberriko amabostaldian zernai ian eta edon nezakela esan ziran sendagille batek. Ordun ongi nengoan. Baiña, neurria gorderik ere, gaitz egin zidan.

Lanean asi naiz. Ez dakit esan nizun, baiña Agustin gurenaren «Aitorkizunak» gotzaitegian da —Donostikoan— Eleiz-baimenaren eske. Urtearen azkenerako atera nai luke Pio Montoya iaunak.

Bezperak ere egin nitun puntu edo rimarekin eta Eliz-baimena ba-dute —Akitza'ko Gotzaiarena—. Laister asiko dira abesten. Na-parroako Oskotz'en lenbizi.

Orain beste lanak utzita Dantzarengaz liburutxo bat egiteko agintzen didate. Datorren igandean noa Bedaio'ra ango gizadantza ikustera, eta berela asi bearako. Jainkoak emango al dit osasuna, nere beste lanak egiteko.

Emen ez da berriagorik.

Goraintzi beroak Aita Agapito'k.

Memento

NIKOLA

Etxekoeri milla goraintzi eta asko pozten naizala aien osasun onaz.

Zure kartak illabete ta koska egin du bidean.

Orexa'tik, 10-IV-57.

Oiartzabal'dar Martin iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Lenbizi Pasko on Jainkoaren grazi ugariekin. Aspaldion ixilik gaude. Lengoan eman zitidaten Labaien'ek goraintziak zure kexi.

Ni askoz obeki nago. Illabete onen lenean ia oso etsirik egon nintzan, baiñan orain beste gizon bat naizela esan dezaket. Lanean asi naiz. «Dantza Nagusia» bukatu det. Labaien'ek arekin liburutxo bat atera nai du. Nere liburuaren beste atal bat egin det, eta aurrerako argitasuna ta kemena sumatzen ditut, Jainkoari esker.

Santa Kurutz egunean erriko pestaburu degu, ta nai baduzu etorri, mami puxka bat jango dugu.

Gure etxeokak milla goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik 9-VIII-57.

Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Osasunez nola nagon? Onezkero ez dit axola aundirik ematen «ezin-eriozko» edo inmortal egin bainaute. Isaak-ena neronek eskatu nien baldin-itz bezela.

Osasunez, bada, poliki antzean irugarren illabete ontan. Negurako ongi-xamar jarriko ote naizen itzaropena.

Bi jesuitek agertu bat egin zidaten igaro dan Maiatzaren 20'garrenean. Zertara? Itzez esango etorri zaitenean.

Aita Patxi Etxeberriak ez dit igorri oratño kopiarik, eta dut itzaropen aundirik ere. Gure adiskide oiek berentzat nai dute totum honorem.

Scubion'go iztegitxo... neque si Spiritus Sanctus est... ez neukan gogoan. Emengo ficheroa ere, Euskaltzaindirako egina neukana. itzalia da. Oinbeste lan galdu!

Osasunez poliki zaudenak pozten nau. Lazkan'ko beneditarrekin zerbait egin ote daiteke? Iende gutxitxo. Erromatik aurten etortzekoa ba-dute bat, bizkor samarra. Aita Mokoro'ren ficheroa or daukate gordea irurogei ta geiago papeletarekin. Ba-da lanean asteke aina.

Ez dakit zer ari diran nere Bezperakin. Eznaiz asko gauza idazteko ere, ta aspaldi ez dut ango herririk. Oskoz'ko apaiza ez zan orain-ixe asi lenbizi eman bear zitula-ta. Eliz-baimena ba-du Akiza'tik. Puntuetan edo riman dago, ta musikarekin multikopian. Aita Patxi Aiz-puruak atera zun, eta kopiak ark dauzka.

Besterik gabe, laister arte.

Etxeokak milla goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik, 57-XI-5'gn.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari.

Adiskide aundi: Zurea iasoa det. Ni karta au egiteko sei egunez aurretik asi naiz, zer gerta ere. Alegia, Asti-gripe orrek oiean dauzka gure etxean amabitatik amar. Ni oraindik ez nau atxitu, baña bildur naiz, eta orregatik, dagola karta au datorren larunbata arte. Orduan bat edo bat ba'diteke au Tolosara eramateko. Astelenerako iritxiko al zaizu.

Beraz Martin Guren aundiak Iainkoagandik ekarri detzaizula eskuak bete daga.

Ni gero ta polikiago. Maiatzaren 21 ezkeru ez dut ukan eroririk edo eraso gogorrik. Urrilean bost kilo irabazi ditut. Egunero Elizara asi naiz. Oinbestean pozik.

Aita Ixidor Baztorrika emen nun lengoan, Bezperak dirala-ta. Era-man ditidate Completak ere, bai gipuzkeraz, bai bizkaieraz. Matximenta'n ematen omen dira Bezperak euskeraz. Beste errietatik ere eskea asi da. Argitara eman bearko lenbailen.

Nik asi dut liburuaren bigarren alderdia. Orain tarteko lan batean ari naitz: Euskaltzaindian sarrerako itzaldia antolatzen, Gaia, «Leitzako mintzo-dotina».

Nere burua arin xamar dago, ta emen bukatuko dut, gero izketa-tarraitzekotan.

Etxekoak milla goraintzi.

Memento

NIKOLA

Orexa'tik, 1958-I-16'gn.

Oiartzabal'dar Martin apaitz jaunari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Zurea iaso ezkeru au gogoak eman dit; zu onara etorteko oker dagola, ta lokazti izugarriak daudela, ta ni or agertzea obe litzakela. Neretzat astelena da egunik oberena. Datorrenontan, 21'garrenean, astelena, noski, joango nitzazuke. Asteleneetan ama

bostero etorten da «Atalloarra» Orexa'raño. Beraz, nik, orrara eguerdi aurrean iritxi, ta illuntzerako Tolosa'ra, aski nuke.

Lanerako gogoan omen zaude, Aita Ixidor'ek dionez. Ni ere bai, bada, ta lenego bezela asi naiz ziztu osoan, «Jainkoaren billa» ori aurren bukatzen ote dudan. Tarteko lan batzukin, iakiña.

Zuk zeure asmo ta burubideak ba'ditukeru, nondik asi, zer egin. Nik nere aldetik lenengo lan berria, onako azalkizun edo thesi aukuntza guziak batetik ote datozen, beraien itz-urrenari edo Syntaxiari begiratu ezkeru. Ustekizun edo hypothesi bezela, beintzat. Oarkizun batzuk ba-ditut Prantzian utziak, ez dira gauza aundia; baiña, zuk arzera egiten ez ba'duzu, bion artean osatuko genuke. Neretzat bakarrentzat lan astuntxo.

Nik zati auk aztertu nitun latinezkoak: Dial. II, De Oratore (osoa), de vita et moribus Catilinae, eta De bello gallico (zatiak). Griegoz Hömer, Platon, Xenofon, Anakreon (zatiak). Ondorio au atera nün: Salustio 97% aldiz euskeraren itz-urrenari irixten dala, Kaiser 95% aldiz eta Kikeron 94% aldiz. Gaiñerako latitarrak ortik asko ieixten dira. Griegoek asko galdu zuten itz-urrenari. Platon ez da irixten askolan 60'tara ere. Ezago Xenofon eta abar. Homer ere berriago da itz-urrenari Vergili baiña. Hispositis, eta iaponesa ta turkoa euskerarekin berdin dirala; ta gaiñera, izkuntzak, zenbat eta literatura zarragoa duten gureta gelago urbiltzen dirala, uste izateko da; len-lenbiko izkuntzaren itzurrenari gure auena dala.

Beste aztergai bat: «Baratza-iorra» izena dun kritika bat egin genezake biok, «Euzko Gogoa, Egan eta Yakintza» aurkintza ditugula. Bai siñeskizunean, bai ele-ederrean, gure gaztedia ezkerreara doa. Aro oheak etorriko dira, Jainkoak onez. Iakiña O ta O'ren izenean. Zer iduritzen?

Ni gero ta obeto osasunez, Jainkoari esker. Odolak berotzen ari zaizkido, ta zu bezelako galga baten bearra izango dut oraindik ere, geiegikorik ez esateko.

Or itz egingo luzeago.

Etxean guziak ongi. Argi gaixoak makurra ukan du: lenengo aurr Cesarea'ren bidez atera zioten, eta beala il zan.

Guzien kexi goraintzi.

Memento

NIKOLA

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Ernani'ra.

Adiskide aundi: Noizbait ere garai da bizi-zantzua emateko. Erramu biaramonean bildu nintzan etxera. Igaz bezala bezalaxe, Apirilaren len-asteen eroraldi aundi bat izan nun, geiago ezertarako ta iñorako gauza izango ez banintza bezala. Ezin-jana, gora-naia, zorabioa izan ditut lagun ia oraintxe arte. Oraindik ez naiz nere onetara etorri, baiña laister etorriko ote naizan. Odolaren aldia izan ote da?

Bearrik erè, lana mendean daukat, beste argialdi pare batean bukatzeko eran. Jainkoa lagun, oinbeste adiskideen otoitzak bultzatuta, iritxiko al naiz azkenerano.

Egualdiak ere gogorrak egin ditu illaren lenengo egunetan: elurra, izotzak eta curiak. Orain eguzki ederra agertu du. Eguzki asko artzeko agindu zidan sendalariak, eta tisikuen biziera egiteko, au da, etzana. Tintxo entzungo diodala nago.

Ez dut asmorik bigarren tximist-erai txanda artzera ioateko. Ezuritik obetoxego noala iduri zaida.

Eta zu? Goizero olako zurubi-sailla igotzeko, Gurutze bide polita daukazu.

Aita Isidor'i egin nion Lasartetik, eta ez dit erantzun. Ni Lazkai'ra ioan al izatea, gerta-er gertako gauza zala esaten nion. Bezperra en herririk ez dakit batere. Igaz Eguberrietarako argitara emateko asmoa zuten. Gauzak patxaraz artzen ditute.

Besterik gabe, milla goraintzi Eusebi ta Estefani lengusueri, eta zu nitaz.

Memento

NIKOLA